

# Asrama Calasanç



**ATAMBUA, INDONESIA**



Lagundutako **91** pertsonak



Proiektuan lan egiten duten pertsonak **16**

Contratadas: 5  
Voluntarias: 5 religiosos y 6 aspirantes



**Gizarte-errealitatearen aurkezpena**



**Egiten den lanaren deskribapen samurra**

**Asrama Atambuako auzo batean dago eta bertan biñi dira gaur egun 91 pertsona barnetegian. Klase ertain baxukoak gehienak, inguruko ikastetxeetara joaten direnak.**

- Familiek aur re egin behar dioten zailtasun ekonomikoa dela eta, horietako askok ordainketak atzeratu edo arrozarekin osatzen dituzte.
- Atambuako eskola-komunitateak, barnetegiko zuzendariaren bitartez parte hartzen du, P. Christophorus, eta beregan aurrera eramaten dugun misioan laguntzen gaitu.

Asramako misioaren helburu nagusiak bi dira: batetik, landa-eremuetako haur eta gazteak bigarren hezkuntzara iristen direla bermatzea, eskola-desertzioaren aurka borrokatuz; eta, bestetik, kultura-prestakuntza eta hezkuntza espiritualak landuko dituen hezkuntza integrala bultzatzea.


Barnetegian egiten diren jarduerak:

- **Eskola-laguntzako klaseak:** haurrei ikasketetan eta betebeharretan laguntzea.
- **Ingeles klaseak:** Ingelesa astean behin irakastea, eta "English Club" delakoa aurreratuentzat.
- **Laguntza pertsonala:** Hilero haur bakoitzarekin elkarrizketa egitea eta familiekin sei hilean behin biltzea..
- **Eliz eta jarduera espiritualak:** Egunero otoitz egitea, Eukaristia ospatzea, Adiski-

detzearen Sakramentuaren ospakizuna, eta baita parrokiako jardueretan parte hartzea ere (korua, meza-mutilak, etab.)

- **Gizarte- eta ingurumen-jarduerak:** ingurumena zaintzen parte hartzea, adibidez, hiriko gune nabarietan hondakinak biltzea eta inguruko umegurtz-etxeetara bisita egitea.
- **Kirol eta jolas jarduerak:** entrenamendua eta hainbat kirolen jolasa (futbola, boleibola, saskibaloia, badmintona eta pingpong-a). Mahai-jokoak eta zinema.
- **Artea:** Gitarra klaseak, piano klaseak eta korua.
- **Eskulanak:** aretoak, platerak eta ingurua garbitzea, baratzea, gauza pertsonalen antolatzea





## Misioa **Konektatu** / Asrama Calasang



## Ahots bat, hamaika aldaketa



### Azken urteotako lorpenak

- Ikasleak asko hazi dira azken urteotan, eta, pandemiak iraun zuen bitartean ikastetxeak itxtearekin sortutako zailtasunak gorabehera, bertan misioa berreskuratu ahal izan dugu.
- Diseinatutako hezkuntza-programa erraza da, Asraman lan egiten duen talde pedagogikoaren mugak direla eta, izan ere, aldakorra eta, oro har, eskasa da aurrera eraman beharreko zeregin guztiarentzat. Horregatik, hezkuntza-proposamena zein hezitzaile kopurua eta alde z aurreko esperientzia hobetzer a bideratutako akordioak daude.
- Urte hauetan zehar, hobekuntza ikusi ahal izan da haurrengan, Asraman lan egiten dutenen presentzia, hurbiltasuna eta akonpainamenduarekin lotuta. Proiektuaren auto-sostengua hazteaz gain.



### Etorkizuneko asmoak (hobekuntza-ildoak)

- Calasang Mugimenduaren sorrera
- Bokazio Pastoraleko lana barnetegian dauden ikasleekin
- Liburutegia aberastea, gero auzora zabaltzeko, behar duten beste ume batzuentzat.
- Hezitzaile eta boluntarioentzako prestakuntza-ibilbide bat diseinatzea.
- Barnetegian daudenen hezkuntza-programaren berrikuspenak.



Informazioa: [www.skolapios.org](http://www.skolapios.org)